

I PLAN
GOBIERNO
ABIERTO



GOBERNU
IREKIAREN
I. PLANA

Contigo Zurekin



Participación
Parte-hartzea



Transparencia
Gardentasuna



Datos abiertos
Datu irekiak



Rendición
de cuentas
Kontuak ematea



Integridad
Zuzentasuna

Aurkibidea

Aurkezpena	3
1. Testuingurua: gure abiapuntua	5
2. Zer dela-eta interesatzen zaigu Gobernu Irekia?	7
3. Gure foru Komunitatearen Ondare ona	9
4. Nafarroako Gobernuaren egungo egoera	12
5. Ideiatik ekintzara: plana egitea	16
6. 2021-2023 Aldirako konpromisoak	19
1.º Gobernu irekia indartzea erakundeetan	20
2.º Gobernu irekiaren kultura zabaltzea gizartean	23
3.º Hori posible egingen duten tresna efizienteak eskaintzea	24
4.º Uherritarrekiko harremanetarako eredu berria	28
5.º Gobernantza honen indarguneak finkatzea	29
7. Gobernantza eredua	32

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentua

2021ko Iraila

Iruña

Creative Commons lizentzia



Dokumentu hau Komunikazio Argiaren metodologiari jarraikiz prestatu da, herritarrentzat ulergarria izan dadin.

Aurkezpena

Berri on bat dugu: zure alde eta zuretzat ari gara lanean, zuk gu eta guk zu hobeki ezagutzeko. Politika soziala egiteko modu berri bat da, inflexio puntu bat Nafarroarekiko eta bertako gizartearekiko konpromisoan: Gobernu Irekia, herritarrak ororen erdigunean jartzen dituen beste gobernantza mota bat, inoiz baino gehiago entzuten duena, parte hartzen duena eta protokoloaren alorrekoa dena hizkuntza arruntera hurbiltzen duena. Demokrazia perfektionatu eta osoago bat bultzatu nahi dugu, eta zu izatea motorra.

Demokrazia perfektionatu eta osoago bat bultzatu nahi dugu, eta zu izatea motorra.


Ezinezkoa da ahaztea COVID-19aren krisi betean gaudela, zinez garai zaila mundu guztian. Eta, hain zuzen, plana agertoki horretan sortu denez, premiazkoa da hainbat gai ebazten joatea: Zer erronka ditu Nafarroako gizarteak? Nola egin aurre egungo ziurgabetasunari eta pandemia ondoko susperraldi ekonomikoari? Noiz sartuko gara bete-betean garapen jasangarrian? Egiazki ari al gara zerbait egiten Nazio Batuen 2030 Agendari dagokionez?

Bada, agertoki horretan du jokoan Nafarroak bere etorkizunaren zati bat, bederen. Hori dela eta, inoiz baino gehiago, politika publiko on bat behar dugu, kalitatezkoa, egungo errealitateari erantzun eraginkor, jasangarri eta bidezkoak emanen dizkiona, baina betiere aurrera begira.

Nola erdietsiko dugu?

Lehenik, herritarren parte-hartzea ezinbesteko katebegi bihurtuz. Entzun egin nahi zaitugu, zuk guri gauzak kontatzea. Badakigu, halaber, arrakastak ahalik eta gardentasunik handiena eskatzen duela; alegia, zer egiten dugun jakin dezazula, nola egiten dugun. Eta proiektu on orori dagokion bezala, kontuak eman ez biribildu nahi dugu: gure gain hartu zer konpromiso ezin izan ditugun bete, zer oztopo edo erronka izan ditugun, baina bai eta helburuak nola erdietsi diren ere. Hori guztia modu ireki batean, balio soziala duten datuak jendaurrera ekarrita.


Helburuen kate hori, herritarrentzako arreta eredu berri bat barne, administrazio publikoan lan egiten dugunon integritatearekiko konpromiso batean gauzatu da. Azken finean, Planak "egiteko modu berri" bat hedatuko du erakunde publiko eta gizarte eragileen artean, eta, besteak beste, *jokabide etikoa*, *balio publikoa*, *erantzunkidetasuna*, *lankidetzeta* eta *kapital soziala* izanen dira Nafarroako Gobernuaren oinarriak datozen urteetan.



COVID-19aren krisia

- Zer erronka izanen ditu Nafarroako gizarteak?
- Nola egin aurre egungo ziurgabetasunari eta pandemia ondoko suspertze ekonomikoari?
- Noiz sartuko gara garapen jasangarrian bete-betean?
- Egiazki ari al gara zerbait egiten Nazio Batuen 2030 Agendari dagokionez?
- Nola erdietsiko dugu?

Hemen hasten da Gobernu Irekiaren 2021-2023 aldirako I. Plana.



TESTUINGURUA: GURE ABIAPUNTUA

Testuingurua: gure abiapuntua

Gaia jorratzen hasi aurretik, gobernu ireki batek zer esan nahi duen galdetuko diozu zeure buruari. ELGAko Kontseiluaren Gomendioaren arabera, Gobernu Irekia da “alde interesdunen gardentasunean, integritatean, kontu ematean eta parte hartzean oinarritutako printzipioak sustatzen dituen gobernantza kultura bat, demokrazia eta hazkunde barneratzailearen alde egiten duena”. Horrez gain, honako printzipio hauek arestiko definizioa osatzen dute:

Administrazioen eta gizartearen arteko harreman hurbilago bat

Adimen kolektibotik aplikatutako soluzioak

Benetako aldaketa bat zerbitzu publikoaren kontzepzioan

Barneko eta kanpoko komunikazioa, irekia eta gardena

Hortaz, zer esan nahi du irekiera horrek Nafarroarentzat? Zerk ekarri gaitu honaino?

Hortaz, zer esan nahi du irekiera horrek Nafarroarentzat? Zerk ekarri gaitu honaino? Elkarren arteko elkarrenergina duten hiru indar handi aipatzen ahal ditugu: alde batetik, Nafarroako komunitatea eta administrazioa; eta, bestetik, munduko gizartea. Guztiz harritu gaituen errealitate batek gidatutako hiru elementu: COVID-19aren krisi ekonomiko eta soziala bera, erakundeek erantzuteko duten gaitasuna probatzen ari dena; hain zuzen, horregatik dago lidergo publikoa elkarlaneko kudeaketa baterantz birdefinitzeko premia.



Nafar komunitatea

- Gero eta adimentsuago eta kontzienteago, herritarrek jakin nahi dute zer egiten duten erakunde publikoek, enpresek eta gizarte erakundeek; programa publikoetan inplikatzeko eskatzen du, bereziki baliabideak mugatuak direnean.
- Adimentsua ez ezik, nahiko konplexua ere bihurtu da gizartea, eta horrek administrazio trebeago eta erabakitzaileago bat eskatzen du. Hau da, herritarren premiei aurrea hartuko dien gobernantza bat, herritarrei erabakietan parte hartzea erraztuko dieten bide eta tresna berriak erabiliko dituen.



Gure Administrazioari dagokionez

- Zorpetze publikoa hazteak erakundeen aurrekontua txikiagotu du -ez epe motzean, txertatuko diren estimuluengatik, baina bai epe ertain eta luzean-, eta horrek inbertsioak lehenestera behartzen du.



Eta munduko gizarteari dagokionez

- Kontinente guztietako hainbat komunitatetan, pertsonek erakundeengan zuten konfiantza agortu egin da ustelkeria eta praktika txarreko kasuen ondorioz, eta horrek honako hau birplanteatzea ekarri digu: ahalik eta gardenenak izatea.
- Eraldaketa digitala eta adimen artifiziala gertakari globalak dira, eta aukera handiak ematen dizkiote kudeaketa publikoari eta herritarren parte-hartze ereduari.
- Era berean, Gobernu Irekiaren nozioa oso presente egon da datozen urteetan Europako finantzaketa lortzeko irizpideen artean.

¹ ELGA: Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea.



**ZER DELA-ETA
INTERESATZEN ZAIGU
GOBERNU IREKIA?**

Zer dela-eta interesatzen zaigu Gobernu Irekia?

Oinarrizko bost kontzeptu: *herritarren parte-hartzea, gardentasuna, datu irekiak, kontuak ematea eta integritatea*. Eta horiek guztiak zeharkatzen dituen herritarrekiko arreta eta harremana: laguntza integratua eta kanal anitzekoa, herritarrak izapideak egiteko dituen premiei erantzun arin eta hurbila ematen diena. Seiak ere garrantzitsuak dira neurri berean, eta gure gobernu-programan egon beharko lirateke. Eta beti horrela izan ez bada ere, funtsezkoena da orain plan honen oinarri direla, eta horien gainean lan eginen dugu. Begira nola diren elkarren osagarri:



HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Izan ere, pertsona prozesuetan aktiboki sartuz gero, onurak jasotzen ditu administrazioak ere, pertsonak dituen benetako kezkak ezagutzen baititu. Horrela denok irabazten dugu: jendeak esateko duenari entzuten zaio eta guk hobeki erantzuten ahal diegu haien premiei.

Parte-hartzearen bi dimentsio handiren bidez egiten da, haren subjektu aktiboaren arabera: herritarren zuzeneko parte-hartzea eta ordezkari-erakunde bidezko parte-hartzea. Hori guztia, jakina, "deliberazio" kontzeptua oinarri; alegia, erabaki publikoko eztabaida batean azalduko argudioak kontrastatuta.



GARDENTASUNA

Inoiz baino gehiago, erakunde ofizialek modu argi, ulergarri eta errazean azaldu behar dute beren burua. Eta hori bi bidetatik eskaintzen da:

- **Gardentasun aktiboa.** Erakunde batek bere webgunean (Gardentasunaren Ataria izan ohi da) jarduera instituzionalak, antolakuntzakoak, plangintzakoak, garrantzi juridikokoak, ekonomikoak, aurrekontukoak eta estatistikoak argitaratzen dituenean.
- **Gardentasun pasiboa,** edo informazio publikoa eskuratzeko eskubidea. Administrazioak webgunean argitaratu gabe dagoen kudeaketa bati buruzko informazioa ematen dionean hala eskatzen duen edozein pertsona fisiko edo juridikori.



DATU IREKIAK

Administrazioak kudeatzen dituen datuak dira, anonimitasuna gordetzeko prozesua behar bezala eginda, eta, gero, herritarrengana itzultzen dira, balio soziala eta ar balio ekonomikoa sortzeko, eta Datu Irekien Atariaren bidez hedatzen dira.

Gardentasunarekin bat datorren prozesua da. Esan nahi du edonor libre dela –beti modu zilegian– datuak erabili eta birbanatzeko, betiere baldintza bakarra beteta: iturria izendatzea edo egilea nor den aitortzea.



KONTU-EMATEA

Zintzoki justifikatu nahi dugu ea bete ditugun bere garaian zurekin, zuekin guztiekin, hitzartu genituen planak, eta, jakina, ebaluazio hori publiko egin nahi dugu. Horretarako, kanal digitalak (webgunea, App-a) eta aurrez aurrekoak (bilerak, topaketak) baliatuko ditugu.



INTEGRITATEA

Gizabanako gisa aurrera egiteko funtsezkoa izateaz gain, funtsezkoa da, halaber, gobernu baten oinarriak ezartzeko; izan ere, interes publikoa lehenesten da pribatuaren gainetik. Eta hori egitura politiko, ekonomiko eta sozialaren oinarrietako bat da. Eta jokabide zintzo orok dakar egia esateko nahia, kontuak ematekoa.

Baina ekintzarik gabeko integritatea emaitzarik gabeko zerbait da. Hori dela eta, administrazio publikoak "integritate sistema" batzuk sortu ditu, jokabide mota hori sustatzen duten neurriak.



HERRITARREKIKO ARRETA ETA HARREMANAK

Izapide ofizialekin laguntzeko ez ezik, izaten ahal duzun edozein zalantza argitzeko edo iradokizunak egiteko ere, une oro eta behar duzun guztietan, sistema intuitibo, erraz, integral eta kanal anitzeko bat lantzen ari gara.

Eta sei oinarri horiez gain, ardatz ditugu, halaber, **2030 Agenda** eta haren 17 Garapen Jasangarriko Helburuak, eta horien artean Gobernu Irekiarekin lotura estua duten bi daude:



A large, light pink, stylized number '3' is positioned on the left side of the page, extending from the top to the bottom. It has a thick, rounded stroke and a central vertical bar that splits into two curves.

**GURE FORU
KOMUNITATEAREN
ONDARE ONA**

Gure foru Komunitatearen Ondare ona

Duela urte gutxi, Nafarroan bi lege berritzaile onetsi ziren, beste gobernu mota baterako bidea irekitzen dutenak. Merezi du bi hitzaurreak berrikustea:

Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legearen hitzaurrea:

“Nafarroak bide luzea eta emankorra egina du erkidego politiko eta juridikoki sendotu gisa. Foru erakundeez gainera (zeinahi delarik haien adierazpen historikoa), bestelako erakunde batzuk ere baditu, kontzejuak eta batzarreak, konparazio batera, baita afera publikoetan erantzukizunez parte hartzeko bestelako praktika kolektibo interesgarri batzuk ere. Tradizio horiek erakusten dute bizitza instituzionalean parte hartzeko interes handia izan dela, eta, gainera, parte hartzeko dauden bide berriekin batera, aukera eskaintzen dute urrats erabakigarriak emateko eredu demokratiko irekiagoa, integratzaileagoa eta, beraz, herritarren sostengua lortzeko askoz kapazagoa finkatzeko bidean.

Parte-hartzea eta demokrazia zein bere aldetik ulertu ezin diren errealitateak dira. Gizarteak, lehenik, inola ere urratu ezin diren eskubideen multzo besterezin bat bermatu behar du. Eta horrekin batera, herritarren parte-hartzea ahalbidetu eta sustatu beharra du; izan ere, zenbat eta handiagoa eta kalitate handiagokoa izan haien parte-hartzea, orduan eta demokratikoagoa izanen da gizartea”.


Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen hitzaurrea:

“Foru lege honetan islatzen da, finean, gardentasun printzipioak eskaera hau dakarrela berekin: botere publikoek herritarrekin jokatzeko eta haiei erantzuteko modua alda dezatela, eta arduradun politikoek eta langile publikoek barneratu dezatela gardentasun printzipioa, haien jarduna etengabe gidatu behar duen baliotzat hartuta.

Foru lege honen oinarrian printzipio bat dago, alegia, informazioaren eta datu publikoen jabeak herritarrak direla, eta Administrazioaren betebeharra dela horiek ematea, salbu eta Datu pertsonalak babesteari buruzko Legeak babesten dituenak eta administrazio prozeduraren fase erreserbatuetan daudenak”.



Bi lege horiek beste gobernu mota baterako bidea irekitzen dute.



Asoziazionismoa eta tradizio komunitarioa

Nafarroan dagoen elkarteak sortzeko fenomenoak eta auzolana beti izan dira gizarte integrazioaren bultzatzaileak, gizartearen interesen ordezkaritza leialak botere publikoaren aurrean. Balia gaitzen ezaugarri horretaz gobernantza parte-hartzaileago bat garatzeko, boluntarioek egunetik egunera zeregin garrantzitsuagoa izan dezaten.

Udalerritxikiak


Nafarroan, 661.000 herritar gara, 272 udalerritan banatuta, eta horietatik 12k soilik dituzte 10.000 biztanle baino gehiago. Logikoaenez, egitura apal horiek ez dituzte beti eskura giza baliabide eta baliabide teknologiko egokiak. Horregatik, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren babesa.

Bestalde, Nafarroako herriak ondare propio bat partekatzen du, gobernu irekiaren bidean aurrera egitea errazten duena: izaera gizartekoa, hurbilerraza, tolerantzia.

Erakundeen arteko lankidetzak

Lankidetzan jarduteko bokazio handia du Nafarroak. Urrutira joan gabe, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak laguntza ematen die toki erakunde txikiei. Bestalde, gure gobernuak Estatu mailako Gobernu Irekiaren IV. Planaren parte da eta Estatu Administrazio Orokorren konpromisoak txertatzeaz gain, autonomia erkidego guztien eta toki erakundeen artean ekimen berritzaileenak ekarri dituen izan da.

Eta, horrez gainera, Nafarroa Herritarren Partaidetzarako Sare Autonomikoaren parte da, eta horrek hainbat abantaila dakartza: prestakuntzako eta sentsibilizazio jarduerak sustatzea; bitarteko plangintza eta hornikuntza aurrera egitea; hizkuntza errazago batekin hobetzea komunikazioa; plataforma birtual gehiago garatzea eta abar.





**NAFARROAKO
GOBERNUAREN
EGUNGO EGOERA**


Nafarroako Gobernuaren egungo egoera

Edozein unetan helburuak behar bezala zehaztea funtsezkoa baldin bada, are garrantzitsuagoa da orain, pandemiaren ondorioei aurre egiteko garaian. Premia horretatik sortu zen **Nafarroa Suspertu Plana**; plan horrek 190 neurri biltzen ditu eta haietako bat Gobernu Irekiaren Planari lotua dago:

→ **170. neurria.** Gobernu irekia bultzatuko da 2021-2023 Gobernu Irekiaren I. Planaren bidez, eta toki entitateei laguntza emanen zaie Gobernu Irekiaren plan eta ekimen propioak aurkez ditzaten. Herritarrentzako komunikazio- eta arreta-kanal digitalak hobetuko dira, zerbitzuak zabalduz eta sinplifikatuz eta inklusiboago bihurtuz.

Prest aldaketa gauzatzeko?

Puntu honetara iritsita, birmoldaketa honen protagonistak nola dauden galdetu behar da: herritarrak eta haien parte-hartzea, gure integritatea, datuak, argiki adierazteko dugun gaitasuna... Zer egoeratan daude? Zein dira ahuleziak eta mehatxuak? Zer indar eta aukera dituzte?

 <p>Herritarren parte-hartzea</p>	Oraintxe bertan	Zer nahi dugu
	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ibilbide luzea duen arren, parte-hartzea prozesu ez oso bizkorren bidez gauzatu ohi da, eta prozesu horiek gehiegi "akitzen" dute mundu guztia: bai erakundeak bai herritarrak. ▪ Alde dugu gure elkarte-ondarea, jendea erraz bideratzen baitu ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorretako kausetara. ▪ 2015-2019 aldiko legegintzaldian egindako lan onak ezin hobeki gaitu du Nafarroa parte-hartzearen arloan. ▪ Nafarroako Gobernuan soilik, ehun organo, espazio eta kanal baino gehiago daude xede horretarako egituratuta. ▪ Parte-hartze bidezko aurrekontuek, edo aurrekontu irekiek, urteak daramatzate udalerrri eta kontzeju askotan. ▪ Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legea dugu babes. ▪ Parte-hartze Unitateak daude Gobernuako departamentuen barnean. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Parte-hartze zuzena eta espontanea indartu, teknologia berrien ugaritasuna aprobetxatuz. ▪ Parte-hartzearen eragina hobeki ebaluatu eta herritarrei feedback bat itzuli. ▪ Parte-hartzea sustatu, interes kolektiboak lehenets daitezten. ▪ Herritarrentzako interes handiko informazioa eskaini, hala nola aurrekontuak nora doazen edo zerbitzu publikoen kostua zein den. ▪ Parte-hartze deliberatiboko dinamikak txertatu, esperientzia lasaiago eta sakonago izan dadin.



Gardentasuna

Oraintxe bertan

- Informazio asko emateko, hizkera arruntetik oso urrun dagoen estilo bat erabiltzen da, oso hizkera korapilatsua. Horrez gainera, laguntza grafikoa ez da nahikoa. Oroit dezagun gardentasuna argitasunaren sinonimoa dela, eta hitzen nahiz ikusizkoaren eremuei eragiten diela.
- Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluari dagokio publizitate aktiboa zaintzea eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzea.
- Informazio Publikoaren Unitate Arduradunak sortu ditugu Gobernuko departamentuetan.
- Nahikoa informazio dugu, batez ere ekonomiari, araudiari eta gardentasun politikoari buruzkoa.
- Adierazten ahal dugu informazio-argitasunak oso ongi funtzionatu duela pandemian.
- Nafarroako Gobernuaren Aurrekontua bistaratzeko baliabide bat sortu dugu, nahiko osoa eta didaktikoa izateko pentsatua.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa, Espainiako Estatuko araudia (19/2013 Legea) baino askoz zorrotzagoa da.

Zer nahi dugu

- Gardentasuna handitu herritarrei gehien interesatzen zaizkien sektoreetan: osasungintza, gizartea, etxebizitza eta enplegua.
- Haratago joan: gardentasuna egitate bat izatea maila guztietan (erakunde mailan, maila sozialean eta maila pribatuan).
- Herritar erantzunkideak, gardentasunari esker arlo publikoaren kudeaketan nahita parte hartuko dutenak; une oro jakinen dutenak zein diren zerbitzu publikoen benetako kostua eta aurrekontuaren mugak.




Datu irekiak


Oraintxe bertan

- Gure Datu Irekien Atariak dataset ugari ditu alor tematiko askotan.
- "Datuen jabetza" izaten jarraitzen dugu, eta hori aldatzen bada, gizarteak konfiantza handiagoa izanen du administrazio ebazpenetan.
- Datuen eta Algoritmoen Erabilerari Buruzko Manifestu Etikoa daukagu.

Zer nahi dugu

- Sektore pribatuarekin eta hirugarren sektorearekin lankidetzan aritu eta, horretaz gainera, erakunde publikoekin datuak partekatu; izan ere, horrela jauzi kualitatiboa eta kuantitatiboa egiten ahal da, herritarren bizi kalitatea hobetu eta zerbitzu eta erabilera berriak emanda.
- "Datuen kultura" handiagoa sustatu, herritar eta administrazioari langileen artean.
- Datu irekien kontzeptuak eta gardentasun aktiboa batu, dena gauza bera izan dadila: jendeak zenbat eta gehiago jakin eta guk haiei zenbat eta gehiago azaldu, orduan eta hobeki arituko gara elkarerraginean.

 Kontu-ematea	Oraintxe bertan	Zer nahi dugu
	<ul style="list-style-type: none"> Erakunde mailan jada onartutako ideia bat da, baina ez dugu emaitzak erakusteko metodo erraz eta zorrotzik; funts handirik gabe egiten den zerbait da. Hortaz, salmenta politikorako tresna gisa erabiltzeko arriskua dugu. 	<ul style="list-style-type: none"> Praktika hori maila ugariara hedatu: gobernu plana, aurrekontua betearaztea eta departamentu bakoitzaren jarduerara. Potentzial teknologikoari etekina atera, kontu-ematea herritar guztiengana hurbiltzeko. Errealitate Sozialaren Behatokiarekin lankidetzan jardun, kontuak ematearen eta ebaluazioaren alorretan metodologia homogeneo eta aurreratuak zehazteko.

 Integritatea	Oraintxe bertan	Zer nahi dugu
	<ul style="list-style-type: none"> Gobernu Onaren Kodea ezartzen duen martxoaren 17ko 2/2011 Foru Legea dugu, bai eta Jardunbide Egokien aldeko eta Ustelkeriaren kontrako Bulegoa ere. Gobernu Onaren Kodeak gutxi hedatuta daude erakunde txiki eta lokaletan. Integritate sistema kargu politikoak dituzten pertsonen soilik zuzentzeko arriskua dago, erakundeetako teknikariak kanpoan utzita. 	<ul style="list-style-type: none"> Integritate instituzionaleko sistema bat, toki erakundeak ere barnean hartuko dituen eta kontrolerako organo indartsu bat izanen duena. Komunitateak etika publikoko gaietan parte har dezan lortu, integritatean hezteko eredu bat eta prestakuntza programak eskainita.

A large, stylized number '5' is rendered in a light pink color, positioned on the left side of the page. The number is composed of thick, rounded lines, with a horizontal top bar and a curved bottom section.

IDEIATIK EKINTZARA: PLANA EGITEA

Ideiatik ekintzara: plana egitea

Prozesua bi fasetan gauzatu zen: lehenengoan, gako estrategikoak diagnostikatu eta definitu genituen; eta bigarrenean, ekintzak zehaztu eta gobernantza definitu genuen.

Ongi dakigu politika publikoko edozein proiektutan ezinbestekoa dela parte-hartzea, baina aurten osasun larrialdiak era guztietako alderdiak aldatu dituenez, funtsean bide telematikoak erabili ditugu, eta hala ere, inplikazioa azpimarragarria izan da: profil askotako 3.000 pertsonak eta hainbat erakundek iritzi eta ikuspuntu oso baliotsuak eman dizkigute, elkarrizketa, banakako galdetegi eta talde dinamikien bidez. Ezbairik gabe, parte-hartzearen alorreko mugarri bat izan da gure Foru Komunitatean.

Era berean, erregistro horien osagarri, honako hauek egin ditugu:

Nafarroan Herritarren Parte Hartzea Sustatzeko Planaren Garapen Txostena 2017-2019 (2019)

Herritarren parte-hartzearen arloan Nafarroako Gobernuan dauden organo kolegiatuen amaierako ebaluazioaren txostena (2019)

Nafarroan herritarren parte-hartzea publikoki sustatzeari buruzko azterlan kuantitatiboa (2019)

Herritarren parte-hartzearen sustapen publikoa, etorriko diren erronkak proiektatzeko (2019)

Ekarpen horien guztien ondorioz, Diagnostikoa eta gako estrategikoak dokumentua sortu zen, parte-hartzaile guztiei igorri zitzaiena eta Gobernu Irekiaren Atarian argitaratu zena aldi berean. Barne lan bat egin da Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzuarekin, Nafarroako Gobernuako Lehendakaritzako eta Gobernu Irekiko Zuzendaritza Nagusiaren barnean, 2021-2023 aldirako helburuen gako estrategikoak zehazteko.

Planaren zirriborroa azaldu eta jasotako ekarpenak sartu ondoren, eta Gardentasuna eta Gobernu Irekia ezartzeko Departamentuarterko Batzordearen aldeko txostena izanda, ekainaren 23an, Nafarroako Gobernuak Gobernu Irekiaren I. Plana onetsi zuen 2021-2023 aldirako.



**Ekainaren 23an, Nafarroako Gobernuak
Gobernu Irekiaren I. Plan hau onetsi
zuen 2021-2023 aldirako.**

Agerian jar dezagun nor diren parte-hartzaileak

Zu, herritarra, Administrazioan lan egiten duzun pertsona, elkarte edo toki erakunde baten ordezkaria, profesionala... zarena zarela, betetzen duzun eginkizuna edozein delarik ere, zure ekarpena funtsezkoa izan da. Hori dela eta, deialdia egiteko orduan, arretaz jardun dugu inor atzean ez uzteko, nahi duen pertsona orori parte hartzeko aukera emateko, eta, horrez gain, genero ikuspegia zaindu dugu, gizonen eta emakumeen esku-hartze orekatu bat lortzeko. Ildo horretan, eta azpimarratu beharreko datu gisa, herritarrei egindako inkestan nahiz Gobernuo langileei egindakoan, emakume gehiagok hartu du parte (% 60k herritarrei egindakoan eta % 65ek, Gobernuo langileei egindakoan).

Parte hartzeko kanalei dagokienez, laburbilduta, honela gauzatu zen: online inkesta bat osatzeko gonbita egin zen, elkarrizketak egin ziren, zenbait talde fokal deitu ziren inkestaren emaitzak partekatzeko, gobernu irekiari buruz hitz egin eta sakontzeko; zenbait saio deitu ziren lortzen gindoazen emaitzak kontrastatzeko. Horretaz gainera, prozesu osoan zehar, Gobernu Irekiaren webgunean, urrats bakoitza, aurrerapen bakoitza, sortutako dokumentu bakoitza azaltzen zen, eta beti ematen zen ideiak eta iruzkinak aurkezteko aukera.

Eskerrak eman nahi dizkiegu prozesu honetan parte hartzen beren denbora eskaini duten guztiei.



Herritarrak

Online inkesta:

627

parte-hartzaile

Talde fokala:

12

parte-hartzaile

Toki erakundeak

Online inkesta:

63

entitate parte-hartzaile

Talde fokala:

4

entitate parte-hartzaile

Elkartek

Online inkesta:

43

entitate parte-hartzaile

Talde fokala:

9

entitate parte-hartzaile

Nafarroako Gobernuo plantilla

Online inkesta:

2130

parte-hartzaile

Lan-tailerra

15

parte-hartzaile

Nafarroako Gobernuo eta beste gizarte-eremu batzuetako funtsezko pertsonak

Banakako elkarrizketa egituratuak

15

parte-hartzaile



A large, light-colored graphic of the number '6' is positioned on the left side of the page. It is composed of two rounded, overlapping shapes that form the digit, rendered in a style that looks like a thick outline or a light wash.

2021-2023 ALDIRAKO KONPROMISOAK

2021-2023 Aldirako konpromisoak

Gure proposamenak 25 konpromiso biltzen ditu, 5 ardatz estrategikotan banatuak, eta horien bidez gauzatu da Plana gure komunitatean: Gobernu Irekia indartzea maila instituzionalean; Gobernu Irekiaren kultura zabaltzea gizartean; hori egingarri eginen duten tresnak eskaintzea; herritarrekin hitz egiteko modu berri bat; eta gobernantza horren indarguneak sendotzea.

Gobernu Irekia indartzea erakundeetan

1. Indarreko legedia osoki betetzen dela ziurtatzea: Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Legea, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea.
2. Interes Taldeen Erregistro bat sortzea.
3. Erakundeen integritate sisteman aurrera egitea.
4. Kontuak emateko eredu propio bat garatzea.
5. Datu-plataforma irekien arteko elkarreragina sustatzea.
6. Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko hitzarmena finkatzea, toki erakundeetan gobernantza hori babesteko.

Gobernu Irekiaren kultura zabaltzea gizartean

7. Gobernu Irekiaren benetako garrantzia zabaltzea.
8. Gobernu irekiaren alorreko berrikuntzak eta aurrerapenak eta parte hartzeko aukerak etengabe ezagutaraztea.
9. Gizarte-erakunde eta -entitateetako Gobernu Irekiaren jardunbide egokiak goraiatzea.

Hori posible eginen duten tresna efizienteak eskaintzea

10. Parte-hartzearen espazio digitala hobetzea.
11. Urteko esku-hartze garrantzitsuenak jasoko dituzten Urteko Parte-hartze Plan zorrotzekin osatzea.
12. Aurrekontu Parte-hartzaileak ezartzea, herritarrek Foru Aurrekontuetan parte hartzeko tresna gisa.
13. Parte-hartzea benetan egiaztatzen duten eztabaida publikoak garatzea.
14. Esperientzia pilotuak bultzatzea, herritarrek zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten.
15. Parte hartzeko organo formalak indartzea, balio publikoa sortzen duten lankidetzarako eta adostasunerako funtsezko espazio gisa, ahalik eta eraginkortasunik eta gardentasunik handiena bermatuz.
16. Haurren eta gazteen parte-hartzea sustatzea.
17. Inklusioa Gobernu Irekiaren funtsezko zutabe bilakatzea.
18. Gobernu Irekiaren Atariaren irisgarritasuna eta ulerkuntza hobetzea.
19. Kontuak emateko espazio digital bat sortzea.

Herritarrekiko harremanetarako eredu berria

20. Herritarren arretarako eta harremanetarako eredu berri bat definitzea, harremanetan eraldaketa ekarriko duena.
21. Herritarren Arreta Bulego bat irekitzea, eredu berri hau abiaraz dezan.

Gobernantza honen indarguneak finkatzea

22. Gobernu Irekia digitalizatzeko programak bultzatzea.
23. Gai honetan erakundeetako langileak eta lurraldeko beste eragile garrantzitsu batzuk gaitzea.
24. Gainerako administrazio publikoekin Gobernu Irekiko metodologiak partekatzea, lankidetzaren eta ikaskuntza komunitateen bidez.
25. Gizarte zibilarekin aliantzak sortzea, Gobernu Irekiaren nozioa finkatzeko.

Gobernu Irekia indartzea erakundeetan

Gure Foru Komunitatean Gobernu Irekirantz orientatuko duten funtsezko gakoak ongi finkatu nahi ditugu: demokrazia osoago bat, gobernantza irekia eta erakundeekin konektatuago egonen dena. Hori erdiesteko, lehenik eta behin, araudiaren garapena eta legedia betetzea finkatu behar dira.

1. Indarreko legedia osoki betetzen dela ziurtatzea: Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko Foru Legea, eta Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko Foru Legea:

Kontzeptua:

Duela gutxiko bi lege horiek inplementatzea.

Aurreikusitako jarduketak:

- Herritarren Parte-hartzerako Erregistroa sortzea.
- Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua sortzea.
- Gobernuaren barnean departamentu-unitateak eratzea parte-hartzearen alorrean.
- Informazio Publikoaren Unitate arduradunak sendotzea Nafarroako Gobernuaren barnean.

2. Interes Taldeen Erregistro bat sortzea:

Kontzeptua:

5/2018 Foru Legeak xedatzen du Foru Komunitateak eta 5.000 biztanletik gorako herriek Interes Taldeen Erregistro bat izan beharko dutela, agintariekin, goi-kargu publikoekin, kide hautetsiekin eta abarrekin zerikusia duten jarduerak kontrolatzeko, betiere gardentasun handiz eginik kontrol lan hori.

Aurreikusitako jarduketak:

- Interes Taldeen Erregistroa definitzea eta araudi bidez antolatzea.
- Haren jarduerak erregistratzea ahalbidetuko duen soluzio teknologikoa diseinatzea.
- Agenda instituzionalaren publizitate aktiboarekin lotzea Erregistroa.

3. Erakundeen integritate sisteman aurrera egitea:

Kontzeptua:

Administrazioak jokabide eredugarria, arauen araberakoa eta etikoa sustatzeko neurriak hartuko ditu, balioak hedatzeko jarduerak barne.

Jarduketak:

- Erakundeen integritate eredu bat kontzeptualki definitzea.
- Hura integritate sistema batean egituratzea.
- Ibilbide orri bat garatzea.
- Sistema abiaraztea.

4. Kontuak emateko eredu propio bat garatzea:

Kontzeptua:

Xede garrantzitsuenetako bat da, helburuen betetze mailari buruzko informazio objektiboa eta egiazkoa ematea baitakar.

Jarduketak:

- Kontzeptualki definitzea kontuak emateko eredu bat.
- Reactivar Navarra / Nafarroa Suspertu 2020-2023 planari aplikatzea.

5. Datu-plataforma irekien arteko elkarreragina sustatzea:

Kontzeptua:

Open Data Nafarroaren bidez bat egiten dugu, mundu mailan, datu publikoak mugarik gabe erakusteko ekimenarekin, herritarrek Gobernuak sortutako jardueri buruzko informazioa eskuratzeko aukera izan dezaten beti.

Jarduketak:

- Datu-katalogo bakar baterantz eboluzionatzea, datu irekien plataformen arteko informazioa finkatuz.
- Pixkanaka, NASTAT - Nafarroako Estatistika Institutuak eta datos.gob.es plataformak sortutako datuak Open Datara gehitzea.
- Open Data Nafarroaren webgunearen diseinua eta irisgarritasuna hobetzea.
- Unibertsitatearekin lankidetzan aritzea unibertsitateko ikerketan eta irakaskuntzan, datu irekien erabilera sustatzeko.

6. Nafarroako Gobernuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko hitzarmena finkatzea, toki erakundeetan gobernantza hori babesteko:

Kontzeptua:

Gobernu Irekiak udalerrri bakoitzean egon behar du presente, txikia izan arren.

Jarduketak:

- Toki erakundeek Gobernu Irekian sustatutako ekimenak babestea.
- Toki erakundeekin lankidetzan aritzeko tresna metodologikoak garatzea.
- Lankidetzako ikaskuntza-metodologiaren bidezko euskarri teknologikoa indartzea.
- Toki erakundeek herritarren parte-hartzearen arloko dirulaguntzen urteko deialdi bati eustea.

Gobernu Irekiaren kultura zabaltzea gizartean

Oraintxe bertan, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren alorretan gertatzen ari diren eraldaketa ugariak kontuan izanik, ez da nahikoa Administrazioak bere informazio kanalak hobetzea. Gobernuak, halaber, herritarrei erantzunkidetasuna eskaini behar diete, benetan inplika daitezzen erabakiak hartzen eta zerbitzu publikoak ebaluatzen.

7. Gobernu Irekiaren benetako garrantzia zabaltzea:

Kontzeptua:

Funtsean, herritarren eskubide bat eta balio demokratiko bat da.

Jarduketak:

- Herritarren parte-hartzearen garrantzia sustatzeko dibulgazio kanpainak.
- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ezagutaraztea eta erabilera sustatzea.
- Datu irekien ezagutza, erabilgarritasuna eta erabilera sustatzea.

8. Gobernu irekiaren alorreko berrikuntzak eta aurrerapenak eta parte hartzeko aukerak etengabe ezagutaraztea:

Kontzeptua:

Herritarrek eta gizarteko eragileek egunean egon behar dute gai honi dagokionez.

Jarduketak:

- Nafarroako gizarte osoari eta Gobernuak langileei zuzendutako newsletter bat sortuko da –hura erraz eskuratzeko modua izanen da.
- Sare sozialetan profil espezifikoak sortuko dira, zabalkundea errazteko.

9. Gizarte-erakunde eta -entitateetako Gobernu Irekiaren jardunbide egokiak goraiatzeari:

Kontzeptua:

Jardunbide Egokiaren Bankuaren helburua da herritarrek parte-hartzearen alorreko jardunbide egokiak aintzatestea, bihurtzeko deialdien bidez.

Jarduketak:

- Aintzatespen ildo hori indartu eta Gobernu Irekiaren beste dimentsio batzuetara hedatzea.
- Egiteko modu berri hori gizartean sartzen joan dadin lortzea.

Hori posible eginen duten tresna efizienteak eskaintzea

Aurreko bi konpromisoek adierazteko eta entzuteko ahalmena ematen diete herritarrei. Baina hori guztia tresna zinez eskuragarriekin, intuitiboekin, egin behar da, jende guztiarengana iritsiko direnak, eta horretarako ezinbestekoa da arreta jartzea dena delako egoeratik (adina, desgaitasuna, prestakuntza, egoera soziala) zailtasun gehien dituzten kolektiboetan. Hau da, Gobernu Irekiari buruzko komunikazioa etxe eta erakunde orotara iristea nahi dugu.

10. Parte-hartzearen espazio digitala hobetzea:

Kontzeptua:

Beharrezkoa da parte hartzeko aukera telematikoko bat aurkeztea, arina eta erraza, eta, batez ere, emaitzak partekatzea.

Jarduketak:

- Parte-hartze prozesuak zentralizatzea eta ikusgarriago egitea.
- Gune digital bat izatea, kide anitzeko organoak herritarrei ezagutarazteko.
- Herritar guztiei beren ekimenak azaltzeko espazio digital bat bermatzea.
- Toki erakundeei espazio digital bat eskaintzea, herritarrek parte hartzeko ekimenak susta ditzaten.
- Aurrera egitea parte hartzeko tresnetan.

11. Urteko esku-hartze garrantzitsuenak jasoko dituzten Urteko Parte-hartze Plan zorrotzekin osatzea:

Kontzeptua:

Komeni da parte hartzeko prozesuak barrutik planifikatzea eta Nafarroako gizarteari ezagutaraztea.

Jarduketak:

- Urteko parte-hartze planik esanguratsuenak egitea eta bultzatzea.
- Haiek Nafarroako gizarteari aurkeztea, Parte-hartze Atariaren bidez.

12. Aurrekontu Parte-hartzaileak ezartzea, herritarrek Foru Aurrekontuetan parte hartzeko tresna gisa:

Kontzeptua:

2022tik aurrera, herritarren iritziak jasotzeko asmoz egingen dira Foru Aurrekontuak.

Jarduketak:

- Abian jartzea aurrekontuak egiteko prozesu bat, herritarren iritziak eta proposamenak oinarri hartuta.

13. Parte-hartzea benetan egiaztatzen duten eztabaida publikoak garatzea:

Kontzeptua:

Nafarroako administrazio publikoek parte hartzeko prozesuak bultzatzen ahalko dituzte, hala nola: inkestak, jendaurreko entzunaldia, kontsulta-foroak, herritarren panelak, herritarren epaimahaiak eta herritarren kontsultak.

Jarduketak:

- Bultzada politikoa eta teknikoa indartzea, pixkanaka eztabaida publikoko esperientzietan aplikatzeko.
- Parte-hartzearen emaitza gogoetatsuagoak eta kualifikatuagoak lortzea.

14. Esperientzia pilotuak bultzatzea, herritarrek zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten:

Kontzeptua:

Zerbitzu publikoak dira, agian, parte hartzeko eremurik naturalena eta intuitiboena.

Jarduketak:

- Herritarren lankidetzarako esperientzia pilotuak bultzatzea, Gobernuak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokienez.
- Esku-hartzearen emaitzak partekatzeko dinamikak, bai barne mailan, bai beste erakunde batzuekin.

15. Parte hartzeko organo formalak indartzea, balio publikoa sortzen duten lankidetzarako eta adostasunerako funtsezko espazio gisa, ahalik eta eraginkortasunik eta gardentasunik handiena bermatuz:

Kontzeptua:

Ibilbide luzeko parte hartzeko organo egituratu horiek funtzionamendua bizkortu behar dute.

Jarduketak:

- Parte-hartzaileen gogobetetze mailari buruzko aldizkako ebaluazioak barne hartzen dituzten metodologia homogeneousak definitzea.
- Haien jardueri eta funtzionamenduari buruz emandako informazioa homogeneizatzea eta zabaltzea.

16. Haurren eta gazteen parte-hartzea sustatzea:

Kontzeptua:

Gazteenen parte-hartzea haien interesen eta familia ingurunearen errealitatearen katalizatzaile argia da.

Jarduketak

- Nafarroako Gazte Parlamentua parte hartzeko bide nagusi gisa mantentzea.
- Haur eta nerabeengana jotzea, interesatzen zaizkien gaietan, eta, horretarako, haurrei kontsultatzeko prozesuak egokitzea.
- Haien adinaren eta jakite-mailaren arabera dibulgazioko materiala sortzea.
- Haur eta nerabeen kontseiluak ezartzen dituzten udalerriei babesa ematea.
- Udalerrietako haurrek parte hartzeko organoen mapa egitea eta aldiro-aldiro eguneratzea.
- Proiektu pilotuak diseinatzea, eta, horretarako, eskola eremua, irakasleak eta ikastetxeko zuzendaritza taldeak inplikatzeko.
- Gai horri buruzko prestakuntza ekintzak antolatzea, toki erakundeei eta Gobernuak langileei zuzendutako, haurrek parte hartzeko dituzten eskubideei eta botere publikoen betebeharreri dagokienez.
- Parte-hartze hori bultzatzen duten erakundeekin eta entitateekin aliantzak egitea.
- Haurrek eta Nerabeek Parte Hartzeko Kontseilua eratzea.

17. Inklusioa Gobernu Irekiaren funtsezko zutabe bilakatzea:

Kontzeptua:

Desgaitasuna duten pertsonak edozein parte-hartze protokolotan sartu ahal izatea, batez ere haiei gehien eragiten dieten alorretan.

Jarduketak:

- Kolektibo hori pixkanaka txertatzea parte-hartze prozesuetan.
- Komunikazio integraleko sistema irisgarri bat ziurtatzea (irakurketa erraza, zeinu hizkuntza, braillea, azpigituluak eta abar).

18. Gobernu Irekiaren Atariaren irisgarritasuna eta ulerkuntza hobetzea:

Kontzeptua:

Jakiteko eskubideak berekin dakar herritarrei informazio publikoa eskuratzeko aukera erraztea egintza proaktibo batean.

Jarduketak:

- Gobernua ulergarriagoa egitea, hizkuntza erraz baten bidez eta elementu grafiko erraz eta erakargarrien bidez.
- Publizitate aktiboaren edukia zabaltzea eta formatu berrerabilgarriak sustatzea.
- Publizitate aktiboko edukia eta datu irekiak integratzea.

19. Kontuak emateko espazio digital bat sortzea:

Kontzeptua:

Bide digitala funtsezkoa da kontuak eraginkortasunez emateko.

Jarduketak:

- Nahitaez bete beharreko konpromisoak dituzten plan instituzionalak osatzea.
- Jarraipen- eta ebaluazio-txostenetara hertsiki lotzea.
- Herritarrak atarian sartzeko eta, aldi berean, kontu-emateari buruzko informazioa eskuratzeko tresnak.

Herritarrekiko harremanetarako eredu berria

Hemen sakoneko eraldaketa batez ari gara mintzatzen; izan ere, berekin dakar pertsonekin aurrez aurre hitz egitea, haien benetako premiei buruz, eta, hain zuzen, horrek benetako entzute aktiboa eskatzen du. Proiektua zinez da anbizio handikoa; izan ere, antolaketa kontuez gain, aldaketa kulturalako osagai garrantzitsu bat ere badu: jendeak sentitzen du arreta jasotzen duela eta gurekin zuzenean komunikatzen ahal dela.

20. Herritarren arretarako eta harremanetarako eredu berri bat definitzea, harremanetan eraldaketa ekarriko duena:

Kontzeptua:

Pertsonen ahalduntzea dakar, balio publikoa sortzea, eskuragarritasunean, hurbiltasunean, arintasunean eta erabakigarritasunean bermatzea.

Jarduketak:

- Arintasun, berrikuntza eta proaktibitate kontzeptuen pean jardutea.
- Entzute aktiboa indartzea.
- Herritarren Arreta Bulegoak irisgarriago egitea.
- Kanal anitzeko eredu bati jarraitzea.
- Arduradunei etengabeko prestakuntza eskaintzea.
- Etengabeko ebaluazio eta hobekuntzako parametroak ezartzea.

21. Herritarren Arreta Bulego bat irekitzea, eredu berri hau abiaraz dezan:

Kontzeptua:

Kanal anitzeko ereduaren alde egiten dugu: telematika, telefono bidezkoa eta aurrez aurrekoa.

Jarduketak:

- Maila funtzionalean: langileen zereginak zehaztea eta prestakuntza planak egitea; informazio fluxuak diseinatzea departamentuetako unitateekin; ezagutzaren kudeatzaile bat ezartzea.
- Espazioari dagokionez, lokal bat egokitu eta dagozkion obrak egitea.
- Komunikazioari dagokionez, bulego berria ezagutzera emanen duen komunikazio plan bat egitea.

Gobernantza honen indarguneak finkatzea

Argi dago herritarrak gero eta zorrotzagoak direla sistema demokratikoarekin. Guretat jada ez da nahikoa diskurtso prestatua izatea edo herritarrek parte hartzeko ekitaldiak noizean behin sustatzea. Gobernu Irekia zeharkako printzipio gisa eta gauzak egiteko modu integral gisa integratzeko garaia da. Zerbait sistemikoa eta bizia da, egunez egun eraikitzen dena. Baina ikasi egin behar da.

22. Gobernu Irekia digitalizatzeko programak bultzatzea:

Kontzeptua:

Gobernu Irekiak gaitasun indibidualak eta bateratuak garatzea eskatzen du.

Jarduketak:

- Gobernu Irekiaren Atariaren irudia erakargarriago egitea.
- Parte-hartze telematikoko funtzio berriak sartzea.
- Nafarroako Gobernuaren eta Gobernu Irekiaren Atariko datu irekien eta gardentasun espazioen arteko edukiak automatizatzea.
- Publizitate aktiboaren eta datu irekien arteko edukien integrazioa.
- Kontu-emateari eta toki erakundeei irtenbide teknologikoak ematea.
- Gobernu Irekiaren Atariko tresnen irisgarritasuna areagotzea.

23. Gai honetan erakundeetako langileak eta lurraldeko beste eragile garrantzitsu batzuk gaitzea:

Kontzeptua:

Behar bezala prestatutako eta sentsibilizatutako taldeak izatea.

Jarduketak:

- Jaurlaritzako eta toki erakundeetako langileei zuzendutako prestakuntza eskaintza bat kudeatzea.
- Jarduketa eskuliburuak eta protokoloak egitea eta hedatzea.
- Jardunbide egokiei eta Gobernu Irekiaren metodologia egokiari buruzko tailerrak antolatzea.

24. Gainerako administrazio publikoekin Gobernu Irekiko metodologiak partekatzea, lankidetzaren eta ikaskuntza komunitateen bidez:

Kontzeptua:

Funtsezkoa da joera berriei jarraitzea eta lankidetzaren sistemak ehuntzea.

Jarduketak:

- Espainiako Gobernu Irekiaren 2020-2024 aldiko IV. Planera eta Herritarren Parte-hartzeko Autonomien arteko Sarearen topaketetara joatea.
- Beste erkidego edo sare interesgarri batzuekin partekatzea Gobernu Irekiaren esperientziak.
- Espainiako Open Datan esku hartzea.

25. Gizarte zibilarekin aliantzak sortzea, Gobernu Irekiaren nozioa finkatzeko:

Kontzeptua:

Kontzientzia sozial osoa lortzen bada, konpromisoa handiagoa eta iraunkorragoa izanen da.

Jarduketak:

- Aliantzak egitea gizarte zibila ordezkatzeko duten erakundeekin, gure kasuan, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, UNICEFekin eta CERMINEkin (Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordea).



GOBERNANTZA EREDUA

Gobernantza Eredua

Eta orain, nola igaro proiektutik errealitatera? Ideia eta proposamen bakoitza zintzoki gauzatzen lagunduko digun gobernantza eredu baten bidez. Baina, gainera, uste dugu apustu on batek konpromisoak monitorizatzea ekarriko lukeela, bai eta haren indarraldiaren amaieran ebaluazio bat egitea ere. Jakina, tamaina horretako plan batek bi gauza eskatzen ditu: **jarraipen sistema bikain bat**, eta **erabateko kontu-ematea**.

**Berrikuntza. Aukeren berdintasuna.
Lurraldeen arteko oreka. Kontsentsua.
Hori lortu nahi dugu.**

Jarraipena eta ebaluazioa

Zeregin horretaz Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Departamentuarterko Batzordea arduratzen da, eta bi ebaluazio eginen ditu: bata, erdibidekoa, prozesu betean, eta, bestea, amaieran. Jakina, betiere parte-hartze sendo bat izanik, eta hori bi bidetatik ongi gainbegiratu nahi dugu: batetik, Herritarren Parte-hartzerako Nafarroako Kontseilua, eta, bestetik, Nafarroako gizarteak Planaren betearazpenari buruz duen benetako pertzepzioa neurtzeko berariaz eratutako Herritarren Panel bat.

Kontu-ematea

Funtsezkoa da egun batean proposatu zena betetzea; eta, bestela, argi eta garbi esatea zergatik ezin izan den bete. Bereziki zaindu nahi dugu alderdi hori. Hori dela eta, ebaluazioen hedapen publikoaz gain, kontuak emateko kanal digitalak konpromiso guzti-guztiei buruzko informazio eguneratua eskaintzen dio nahi duen edozein pertsona edo erakunderi.

Berrikuntza. Aukeren berdintasuna. Lurraldeen arteko oreka. Kontsentsua. Hori lortu nahi dugu. Hitz gutxitan, gobernantza bikain bat, guztiengana modu berean iritsiko dena. Konfiantza daukagu Nafarroa osatzen dugun guztiongan, ilusioz pentsatu duguna egia bihurtzeko.



